II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Durangoko Udala

Zaindu beharreko elementuen katalogoaren aldaketa, Planeamenduko Arau Subsidiarioetan jasoa (2.13.5 artikulua).

Zaindu beharreko elementuen katalogoaren aldaketa, Planeamenduko Arau Subsidiarioetan jasoa (2.13.5 artikulua)

Udaleko osoko bilkurak, 2021eko abenduaren 20an egindako ohiko batzarrean, beste zenbaiten artean, aho batez, honako akordio hau hartu zuen:

Lehenengoa: Ezestea Lander Uncilla Cortaberria jaunak Ibaizabal ibaiaren ibilguan eraikitako bi elementu interesgarri katalogotik kentzeko irekitako espedienteari egindako alegazioak. Elementu horiek eraisteko, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak onartutako ur-ibilgu horren gaineko jarduketa hidrauliko bat proposatzen da.

Bigarrena: Behin betiko onartzea 18. (Arripausuetako presa) eta 23. (Muruetatorreko deabruaren zubia) intereseko elementuen deskatalogazioa, Planeamenduko Arau Subsidiarioen 2.13.5 artikuluan sartutakoak.

Hirugarrena: UE-16 hiri-lurzoru finkatu gabearen eremua sustatzen duten enpresek erregistro grafikoak eta doku-mentalak egin beharko dituzte, baita kontrol arkeologikoa ere, instalazioak eraitsi aurretik eta eraitsi bitartean. Betebehar hori urbanizazio proiektua behin betiko onesten duen erabakian eta dokumentu teknikoan bertan jasoko da, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren 2021eko irailaren 22ko txostenean gomendatzen den bezala.

Laugarrena: Presa txikiaren gaineko jarduketan hartu beharreko babes neurriak hartu beharko dira, geroagoko uholdeengatik mantendu nahi den presa txikiaren zatiari ahalik eta kalterik gutxien eragiteko.

Bosgarrena: Durangoko Plangintzako Arau Subsidiarioen 2.13.5 artikuluaren aldaketa osorik argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, eta aldaketa hori ez da indarrean jarriko harik eta 15 egun ahul igaro arte. 7/1985 Legearen 65.2 artikulua. LRBR 70.2).

Durangon, 2021eko abenduaren 30ean.—Alkatea, Ima Garrastatxu Urbaneja

eek: BAO-2022a006-(II-32)